

2003ko apirila

ALKIMISTA

PAULO COELHO

Ikaslea: N. N.
2002-2003

AURKIBIDEA

PAULO COELHO	1
SARRERA	1
ALKIMISTA	2
KOKAPENA	2
GAIA	2
ARGUMENTUA	2
GERTAKIZUN NAGUSIAK	2
EGITURAKETA	3
PERTSONAIAK	3
BALIABIDEAK	4
IRITZIA	6

ALKIMISTA

PAULO COELHO. 1947. urtean jaio zen Rio de Janeiron. Abeslari brasildar ezagunenen hitzak idazten hasi zen hasiera batean, telebistarako gidoiak eta kazetari lanak ere egin zituen. Baina 1987an, bere bizimodua zeharo aldatu zen *O diario de um mago* liburua argitaratu zuenean eta, batez ere, 1988an *O alquimista* kaleratu zuenean. Arrakasta handia izan du azken honek, hasieran Hego Amerikan eta Europan gero. Berrogeita hamabi hizkuntzatarata itzuli da liburu hau eta hamaika milioi ale saldu dira dagoeneko.

Hauetaz aparte, badira Paulo Coelho idatzitako beste hainbat nobela, hala nola: *Brida* (1990), *Na mardem do rio Piedra eu sentei e chonei* (1994), *O Monte Cinco* (1996), *Maktub* (1994), *O manual do guerreiro da luz* (1997) eta *Veronika decide morrer* (1998).

Aipatzekoa da nazioarteko hainbat sari irabazi dituela idazleak lan hauekin guztiekin azken hamarkadan.

SARRERA

Paulo Coelho nobelagileak 1988an idatzi zuen obra honek *Alkimista* du izenburua. Santiago izeneko mutil gaztea da protagonista, eta honen "Norberaren Kondaira"ren istorioa azaltzen du liburuak. Bere artaldearekin leku batetik bestera doan artzaina da Santiago hasieran, baina gero birritan izaten duen ametsa aztertu ondoren, Egiptorako bidean jartzen da, bertan adiskideak, basamortua, oasiak, amodioa, gudak, toki ezberdinak eta alkimiaren sekretuak aurkitzen dituelarik.

Gazte honetaz aparte, honako hauek ditugu nobelaren pertsonaiak: Melkides, Beiraki merkataria, ingelesa, Fatima, Alkimista... eta beste hainbat.

Hasieran Andaluzian, Tarifan... eta ondoren basamortuan eta Egipton kokatua dago istorioa.

Era linealean kontatua dago, atzera ez aurrera itzulingururik egin gabe, pertsonaia guztiei eta gertatzen den orori buruz dena dakien narratzaile orojakilearen bitartez.

ALKIMISTA

KOKAPENA

Alkimista liburuak, izenak dioen bezala, Alkimia bizitza eta esperientzien bitartez ikasi nahi duen mutil gazte baten istorioa kontatzen du. Egileak ez du denboran zehar inolako kokapenik egiten, baina nobelan ageri den *errebolber* hitzari atentzio apur bat jarritz, XIX-XX. mendeetan koka daiteke kontakizuna.

Lekuari dagokionez, hasiera batean Andaluziako lurretan eta Tarifan murgiltzen da istorioa, aurreratuz joan ahala, basamortuan eta Egipton kokatzen delarik.

GAIA : Alkimia eta Norberaren Kondaira.

ARGUMENTUA

Santiago mutil gazte artzaina zen, bere artaldearekin leku batetik bestera toki ezberdinak ezagutzera joaten zena. Bizitza eta bakoitzaren bizimoduaren ikuspegia aldatu zion amets bat izan zuen birritan, Melkides deituriko errege batekin komentatu ostean, honek bere bizitzaren etorkizuna aldatu zuen. Bakoitzak "Norberaren Kondaira" duela eta, beraz, nonbaiten altxor bat zuela pentsatzera ailegatu zen, eta era honetara, bere altxorra egongo zen Egiptoko piramideetarako bidaian hasi zen. Bidean adiskideak, basamortua, amodioa eta alkimiaren sekretuak aurkitu zituen.

GERTAKIZUN NAGUSIAK

Bere artaldearekin hara eta nora zihoan artzaina zen Santiago. Berak betidanik bidaiatzea izan zuen gustuko, eta amets bat birritan izatean hasi zen bere benetako bidaia. Tarifako lurraldean, bere amets horren inguruko aholkua emakume ijitoari entzutean Egiptoko piramideetara joan behar zela konturatu zen, baina ez zuen bidaiarik hasi Melkides, Salengo erregea ezagutzen duen arte. Honek, Egiptoko piramideetan aurkituko zuen bere "Norberaren Kondaira" ren altxorrari buruz hitz egin zion, honetaz aparte, bere bidean zehar ikasiko zituen hainbat gauza eta balioen berri eman ziolarik. Ondorioz, bidaiarekin hastea erabaki zuen Santiagok, Melkidesek emandako bi harri aldean eramanda. Harri hauek, Urim eta Turim, hain zuzen, galduta aurkitzen bazen bere bidea erakutsiko zioten mutilari. Orduan, Tangerrera heltzerakoan, zeraman diru guztia lapur batek ostu zion eta bere bidaia jarraitzeko behar zuen diru kopurua berreskuratzeko, Mekara joan nahi zuen baina horren desiraz beti biziko zuen merkatari baten kristal dendan lan egiten hasi zen. Urtebete ondoren, dirutza egin eta gero, basamortuan zehar jarraitu zuen gazteak bere bidaia, bertan alkimista izan nahi zuen ingeles bat ezagutu zuelarik.

Karabanarekin Al-Fayoungo oasira heldu zirenean, bertan zegoen alkimista bat bilatzen laguntzen zegoela ingelesari, Santiagok, momentuan maiteminduko zuen Fatima deituriko emakumea ezagutu zuen, zeinarekin harreman oso ona izan zuen eta bere bidaiatik bueltatzean ezkonduko zen. Oasian hainbat denbora geratu behar izan zuen Santiagok, gerra zegoelako eta oso arriskutsua baitzen basamortuan barrena ibiltzea. Bertan, egun batean bisio bat izan zuen, gerlariak oasia inbadituko zutela adierazi ziona. Orduan, arriskuaz oasiko buruzagiei berri eman zien mutilak, era honetara, bere bizitza arriskuan jarri zuelarik. Baina hurrengo egunean hala gertatu zen eta gerlariak oasira iritsi ziren, eta horrela izugarritzko dirutza irabazi zuen Santiagok.

Bere bidaiarekin jarraituko zuen, oraingoan, oasian ezagutu zuen alkimista misteriotsu batekin batera, bere bidean lagundu eta hainbat gauza irakatsiko ziona. Orduan, piramideetara ailegatzeaz zeudela, espedizio militar batek geldiarazi zituen bidaiariak, eta Santiagok, aurrera jarraitzeko, alkimiarri buruz ikasi zuen guztia bere burua haize bihurtuz martxan jarri behar izan zuen.

Azkenean, Gizehn dagoen abadia batera iritsi eta hor gelditu zen Alkimista, beruna urre bihurtu eta zati bat mutilari emanaz, honek bere bidaiaren azken epea bete zuelarik. Piramideetara ailegatutakoan, negarrez hasi zen Santiago, bere barneko poztasuna askatuz, eta bere bihotzak, hor bertan harean ondoratua bere altxorra zuela adierazi zion. Baina nahiz eta zulo handia egin ez zuen altxorrik aurkitu gazteak. Orduan lapur batzuk jipoitu zuten Santiago, honek zuen diru guztia lapurtuz. Eta mutilak bere altxorrari eta bidaiari buruz hitz egin zienean lapurrei, hauetako batek Andaluziako eliza baten zegoen altxor bati buruz hitz egin zion mutilari. Momentu horretan, bera egona zen eliza bat zela konturatu zen Santiago, eta orduan, bertan bere benetako altxorra egongo zelaz ohartu eta Andaluziarako bidean martxan jarri zen.

EGITURAKETA

Argumentua osatzen duten gertakizunen garapena lineala da, denboraz atzera-aurrera inolako itzulingururik gabe. Istoriaren kontaketa Paulo Coelho narratzaile orojakile baten eskuetan utzi du, gertatzen den guztiaz eta pertsonaia orotaz dena dakien eta gertakizunen garapena hirugarren pertsonan kontatzen duen narratzailea.

PERTSONAIK

Nobela honetan hainbat pertsonaiak hartzen dute parte baina niretzat ondorengo hauek dira esanguratsuenak: Santiago, Beiraki merkataria, ingelesa eta alkimista.

SANTIAGO dugu istorio honen protagonista. Andaluziako larretako artzain gaztea da. Irakurtzea gustuko du eta leku eta kultura ezberdinak ezagutzearekin eta hortaz, bidaiatzearekin egiten du amets. Horrela, bere bizitzaren "Norberaren Kondaira" martxan jarri eta berehala seinaleak irakurtzen eta Mintzaira Unibertsala bereganatzen ikasten du, konturatu barik, hori guztia baino askoz garrantzitsuagoa den gauza bat ikasten du: alkimia.

Bere bidaiari zehar hainbat pertsona ezagutzen ditu Santiagok, eta hauen artean berarentzat garrantzitsuena Fatima da. Oasian bizi da emakume hau, eta protagonista berarekin maitemindu egiten da lehen aldiz ikusten duenean.

BEIRAKI MERKATARIA kristal denda batean lan egiten duen agurea da. Nahiko atzerakoia da; izan ere, dendan mutilak proposaturiko edozein aldaketaren beldur da. Honek ere badu bere "Norberaren Kondaira", baina ametsetarako bakarrik gordetzen du. Mekara joan nahi izan du eta nahia horrekin biziko da bizitza osoan, baina desira horrekin bizitzea nahiago du, horrela, bizirik irauteko arrazoi bat aurkitu duelarik.

INGELESA basamortuko bidaiari gure protagonistak ezagutzen duen mutila da. Honek egun batean alkimiari buruz irakurri zuen, zehatzago Filosofoen Harriari buruz, eta alkimia ikasten dago baita bere "Norberaren Kondaira" biziz, baina ez du Santiagok bezala egiten. Honek ez du uste, Santiagok bezala, bizitzak alkimia irakasteko ahalmenik duenik eta laborategian sarturik beste bide bat jarraitzen du.

ALKIMISTA oasian bizi da eta alkimiari buruzko hainbat gauza irakasten die, Santiago bezala, bere "Norberaren Kondaira" bizitzen dutenei. Honekin, bihotza entzuten ikasten du protagonistak, baita Munduaren Arima murgiltzen, haize bihurtzen eta alkimiaren esanahia ulertzen.

BALIABIDEAK

Hasteko, aipatu beharra dago, istorioa narratzaile orojakile batek kontatzen duela. Honek, protagonistaren inguruan gertatzen diren gauza guztiei eta pertsonaiei buruz dena daki, eta hirugarren pertsonan kontatzen du argumentua osatzen duten gertakizunen garapena.

Baliabideen barruan, garrantzitsuak dira narrazio, deskribapen eta elkarrizketak, hauek baitira idazleek gehien erabiltzen dituzten espresak. *Alkimista* nobelan gehien ageri dena narrazioa da, ondoren deskribapena, azkeneko lekuan elkarrizketa dagoelarik. Hona hemen, obratik hartutako hiru hauen adibide bana:

Narrazioa:

<< Gau eta egun ibiltzeari ekin zion karabanak. Noiznahi agertzen ziren aurpegia estalitako mezulariak, eta gameluzainak – ordurako mutilaren adiskide egina zen – azaldu zion hasia zela klanen arteko gerra. Zorte handiko izango omen ziren oasisa heltzea lortzen bazuten. >> (120. or.)

Deskribapena:

«Bere oinek inoiz zapal dutako tapizik ederrenek estaltzen zuten zorua; metal horiz eta landuz eginiko argi-armiarmak zeuden sabaitik esekita, kandela piztuez beteak. Tribuetako buruak karparen barrualdean zeuden eserita, zirkulu erdia osatuz, besoak eta hankak brodatu ederrez apaindutako zetazko burukoetan jarriak zituztela. Morroiak etengabe sartzen eta irteten ziren, jaki gozoz eta tez hornituriko zilarrezko erretiluak eskuetan hartuta...» (147. or.)

Elkarrizketa:

«—Mutilarentzat da honakoa, inoiz horren beharrea gertatuko balitz edo.
—Neure altxorraren bila nabil, ordea —esan zuen mutilak—. Eta gertu nago jada!
—Eta ziur naiz aurkituko duzula —adierazi zuen Alkimistak.
—Zer dela eta, orduan, bigarren pusketa hau?» (211-212. orr.)

Tropoei dagokienez, idazleak orokorrean ez ditu asko erabili. Pertsonifikazio eta metafora gutxi ageri dira nobelan eta hauen aurrean, ezberdintasun handiz Paulo Coelho gehien erabili duen topoa konparaketa izan da.

Ondorengo hauen dira aurkitu ditudan konparaketa, pertsonifikazio, metafora eta hiperboleen adibide batzuk:

Konparaketak:

«...baina berari gertatu izan balitzaizkio bezala kontatuko zizkion.» (37. or.)

«...Abraham ere gehiago ikusi ez zuen bezalaxe hamarrena kobratu eta gero.» (55. or.)

«Neskaren ahotsa entzuten zuen mutilak, eta datilondoen hostoetan haizeak eragiten zuen marmarioa baino ederragoa iruditzen zitzaion.» (137. or.)

Pertsonifikazioak:

«Haize hark mairuak ekartzen zituen.» (50. or.)

«...bere begi zailduak ikusi orduko ezagutuko zuten.» (125. or.)

Metaforak:

«Eta ametsak Jaungoikoaren mintzaira dira.» (31. or.)

«Ezinezkoa da batzuetan, alafede, bizitzaren ibaiari eustea.»
(86. or.)

Hiperbolea:

«Eta jende guztiari munduko gezurrik handiena sinetsaraziz amaitzen da.» (37. or.)

IRITZIA

«Baina mundua ezagutzea zuen amets txiki-txikitatik eta askoz garrantzitsuagoa zen hori Jaungoikoa edo gizakien bekatuak ezagutzea baino. Halako arratsalde batez, adorez hornitu eta esan egin zion aitari ez zuela apaiz izan nahi. Bidaiatu egin nahi zuen.» (25. or.)

Pasarte honek dioenarekin zertxobait identifikaturik sentitu naiz eta horregatik aukeratu dut. Hurrengo urtean unibertsitatera joango naiz eta betidanik Medikuntza ikasi nahi izan dut. Etxean ez didate aurpegi txarrez begiratu, baina ikasketa luzea, zaila eta lanbiderik gabekoa dela esan didate, hau da, errealitatea dena. Baina azkenean neure buruari kasu egin eta Medikuntza ikasiko dut, pasarte honek azaltzen duen moduan, aukerarik hoberena hartu ez arren, batek gustura egingo duena egin behar duelako.

«—Honela gertatzen da beti —azaldu zuen agureak—. Aldeko Hastapena deitzen diogu. Lehenbizikoz okatzen baduzu kartatan, ia seguru irabazi egiten duzula. Hasiberriaren Zortea.» (50. or.)

Komentatzeko pasarte hau aukeratu dut, honek dioenarekin ados nagoelako. Izan ere, txikitan, 7 urte nituela gutxi gorabehera nire aitak xakera jolasten irakatsi zidan, berak asko gogoko duelako joko hura. Gauza da, bere kontra jokatu nuen lehen partida, nire bizitzako lehena, irabazi egin nuela. Lelo aurpegia gelditu zitzaion nire aitari, noski. Hori da, hasiberriaren zortea; harrigarria.

*«—Zoriontasunaren Sekretua honako honetan datza: munduko gauza miresgarri guztiak begiratzea eta inoiz ez ahaztea koilarako bi olio-tantez».»
(54. or.)*

Hainbat alditan pentsatu dut pasarte honek adierazten duenaz. Garrantzitsuak diren gauzei arreta handia jartzen diegu, baina zer gertatzen da hain agerian ez dauden gauza ñimiñoekin? Behin film bat ikusi nuen, bere izenburua gogoratzen ez dudana, eta horretaz zihoan gaia. Pertsona baten bizitza narratzen zuen, baina ez pertsona arrunt batena. Gizon honek gauza txikiei begira gelditzen zen, izan ere, gauza horiek, agerian garrantzitsuak direnak bezain liluragarriak direla konturatzen zelako.

*«"Gizaki guztiak bezalakoxea naiz: gauzak gertatzea gustatuko litzaidakeen modura ikusten dut mundua, eta ez gauzak gertatzen diren moduan.»
(64. or.)*

Pasarte hau komentatuko dut, egia esanda, niri askotan gertatzen zaidalako honek dioena, hots, gauzak nahi dudan moduan ikusten ditut, diren bezala ikusi beharrean, Eta hori gehienetan nire kontra bihurtzen da, gauzak espero ez nuen bezala gertatzen baitira.

*«Ondoren, pegarra bete eta alde egin zuen Fatimak. Ingelesak ere alde egin zuen, Alkimistaren bila. Mutila, berriz, denbora luzez geratu zen putzu ertzean eserita, egunen batean Levante-haizeak emakume haren lurrin-usaina ekarri ziola aurpegira pentsatuz, eta bazenik jakin aurretik ere maite zuela esanez bere buruari, eta harenganako maitasunak ahalbidetuko ziola munduko altxor guztiak aurkitzea.»
(134. or.)*

Pasarte honek maitasunean eta honek duen indarrean pentsarazi nau. Maitasunarekin, nahi dituen gauza guztiak lortuko dituela dio protagonistak. Maitatzeko sentimendua liluragarria izan behar dela uste dut. Nire ustez, egunez egun zure zoriontasunaz aparte, beste pertsonaren ongizatean ere pentsatzen eta desiratzen duzunean aurkitu duzu zure bizitzako eta bihotzeko pertsona. Hori da maitasuna.

*«Neskaren ahotsa entzuten zuen mutilak, eta datilondoan hostoetan haizeak eragiten zuen marmarioa baino ederragoa iruditzen zitzaion.»
(137. or.)*

Orain dela urte batzuetako oroitzapena burura etorri egin zait liburuaren pasarte hau irakurtzean. Nire guraso eta nebarekin mendian pasa nuen egun bat gogoratu dut, bertako usaina eta zuhaitzen hostoen marmarioa argi eta garbi gogoratzen ditudalarik.

«Gabiraiei begira geratu zen mutila, eta hegaztien hegaldiek zeruan egiten zituzten irudiei. Inongo ordenarik eta segidarik gabeko joan-etorria zirudien gabiraiekin, baina esanahiren bat izan behar zuela iruditu zitzaion mutilari. Hortaz, hegaztien mugimendua begiez jarraitzea erabaki zuen. Zerbait antzemango edo irakurriko zuelakoan. Basamortuak argituko zion, beharbada, jabetza-sentimendurik gabeko maitasunaren gaia.» (140-141. orr.)

Pasarte hau aukeratu dut, liburu honetaz gustatu ez zaidana ongi adierazten duelako. Pertsona nahiko praktikoa naizela uste dut, eta ez dut ikusten eta garatzen ditugun indar edo botereetan sinesten. Pasarte honetan ageri dena, mutilaren gaitasuna da, seinale hori ulertzeko. Nik ez dut uste munduan gure bidea edo geroa agertzen edo erakusten digun seinalerik dagoen eta *Alkimista* nobela horren inguruan doala esan genezake.

«—Berak hala erakusten duenean. Eta oso gutxitan erakusten du Jaungoikoak geroaren berri, arrazoi bakar bategatik: aldatua izateko idatzi zelako geroa.» (145. or.)

Honek dioena komentatu nahi dut, hainbat alditan lagunekin eta klasekideekin eztabaidatu dudana gaiaz ari delako: geroa idatzia al dago? Nire iritziz, gero bat dago, eta bakoitzak berea dauka, baina ez dago inon idatzia, bakoitzak momentu orotan hartzen dituen erabakien bitartez idazten duelako bere etorkizuna, egunero gero horren hitz batzuk gehiago idazten ditugularik.

«—Nire dendan lan egin dezazun nahi nuke. Bi bezero sartu zaizkit gaur zu ontziak garbitzen ari zinela, eta seinale ona izan da hori.» (73. or.)

Nik ez dut seinaletan sinesten. Hauen existentziaz konbentziturata dagoen hainbat jende ezagutzen dut eta zenbait alditan hitz egin dut haiekin horretaz, seinaletan zertxobait sinestea oker egongo ez litzatekeela pentsatzen dudalarik. Baina ondoren, nire buruari galdera hau egiten diot: Nola da posible munduan dagoen jende guztiarentzat seinaleak egotea? Zer dago, nire bidea adierazten duena?

«Konturatua zen mutila honako honetaz: bera esnatu ahala esnatzen ziren ardi gehienak ere. Bazirudien bazegoela halako indar misteriotsuren bat, bere bizia eta ardi haiena —azken bi urteetan berarekin jan eta edari bila harat-honat zebiltzanak— elkarrekin lotzen zituena. "Nigana ohitzearen poderioz nire ordutegiak ere badakizkitez".» (18. or.)

Behin txikia nintzenean, nire gurasoen laguna zen artzain batekin topo egin genuen nire gurasoek, nire nebak eta nik. Gizona luzaro egon zen hitz egiten, egia esanda, nik nire amari behetik ostikoak eman nizkion elkarrizketa buka zezaten, aspertzen ari nintzen-eta. Baina nire aditasuna lortu zuen zerbait luzaroan harremanetan biziz gero, euren ohituretara ohitzen dira, eta egun

batean gizonak normalean egiten ez duen gauza bat egiten badu, arraro eta ezberdin sentituko da animalia. Hori da gutxi gorabehera pasarte honek azaltzen duena, eta artzain horretaz gogorazi didanez, gero, komentatzeko aukeratu dut.

BIBLIOGRAFIA

- *Alkimista*. Paulo Coelho. Amaiur.
- *2000 hiztegia*. Askoren artean. Adorez.
- *Sinonimo eta Antonimoen hiztegia*. Askoren artean. Elkar.